

2011KO APIRILAK 28

28 DE ABRIL DE 2011

ORGANOA: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: OHIKOA

SESION: ORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2011KO APIRILAK 28

DIA: 28 DE ABRIL DE 2011

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Andoni ETXANIZ OSA
Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Nerea EPELDE AZKUE
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ
Aitor LEIZA ALBERDI

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

Lide AMILIBIA BERGARETXE
Manuel ZUBIA ARTABE
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Cristina FORCADA UNANUE
Pilar ETXABE IRIONDO
Paloma HEREDERO NEGREDO

IDAZKARIA: GORKA URGOITI AGIRRE

SECRETARIO:

Alkate jaunak bilera eratutzat Se da por constituida la sesión por el ematen du. Alcalde-Presidente.

ALKATE-LEHENDAKARIA (EA):

Ohiko plenoari ekingo diogu gaur, apirilak 28, arratsaldeko zazpirak diren hontan,

Ohiko pleno oso gai gutxi dauzkagu, pentsatzen dut gaudenak gaudela, Cristinak badakit ezin etorria adierazi dit, Josebak ere bai, ezin duelako, pentsatzen dut gaudenak gaudela ez? ez dela beste inor etorriko, baina bai Emilianok bai eskatu dit, hitz batzuk hasieran nahi zituela... Palomari buruz zerbait esan eta hitza ematen diot,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Sí, bueno, más que nada por no andar explicandoos a cada uno de vosotros.

Pensaba venir, pero a las dos y media me han llamado que le ha dado un ictus, entonces no os puedo explicar exactamente cuales son las consecuencias, porque tampoco las sé; solamente sé que tenía paralizado medio cuerpo y que ha ingresado por urgencias y estoy esperando o bien que me llame Juan Pedro ó llamarle yo más tarde para tener noticias concretas, pero en principio lo que ha ocurrido ha sido éso.

Por éso no está aquí, porque tenía intención de venir, o sea que las consecuencias todavía... el alcance que puedan tener no las sé.

Para no andar explicando a cada uno, yo os digo a todos de golpe y así mejor.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Ba... aber osatzen den eta pentsatzen dut hurrengo plenorako aber zer edo zer gehiago jakiten dugun eta....

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Le trasladas un abrazo, pienso que en nombre de todos y nuestro deseo de que se mejore cuanto antes, vale...

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Gure aldetik ere berdin noski, eta denon aldetik gero, ahal baldin bada, ez dakit, gero izango den garaia baina hotz egingo diot eta,

Bueno besterik gabe eta berri honen ondoren, hasiko gara aurrengo puntuarekin OGASUNA:

**EUSKAL ELKARTE AUTONOMOAREN EDO ERKIDEGOAREN
ETA ZUMAIAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA
ONARTZEA, BIDEZKO BALDIN BADA, ERKIDEGOKO
ADMINISTRARI ZUZENDUTAKO IDAZKIAK UDAL
ERREGISTROAN AURKEZTEKO.**

Hau dagoeneko, Ogasun Batzordean aurkeztua izan zen eta dakizuen bezala, denon aldeko irizpenak, denon aldeko botu baietza jaso zuen, izan ere... izango litzatekeelako hitzarmen bat, zeinen ondorioz Elkarte Autonomoko Administrazioak aurrera eramaten dituzten hainbat helegite eta tramitazio hitzarmen honen ondorioz, aukera egongo litzatekeelako ez bakarrik Erkidegoko Administrazioari dagozkion lehiatiletan bakarrik sartzeko aukera, baizik eta udaletxetik ahalbideratuko litzatekeelako baita ere ba... berak martxan jarritako hainbat tramitazio ba... hemendik sartzeko aukera izango litzake hitzarmen honen bitartez.

Antzeko hitzarmen bat ere sinatuta daukagu Foru Diputazioarekin eta horrek ahalbidetzen du Diputazioak aurrera eramaten dituen hainbat ekintza edo ekimen baita ere Zumaiako udaletxetik ba... erregistro bezala erabatea eta badakit jakindu naiz erabiltzen dela Zumaiako erregistroa gauza horietarako eta pentsatzen dut herritarren onurako zerbait... nola lehenetasunetan Erkidego Autonomoko Administrazioarekin ere gauza bera egiteko aukera izango dugu hitzarmen honen bitartez.

Bateren batek zerbait esateko badauka, Ezerrez.

Ba... bozkatzera pasako gara, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Aldeko botua

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua; PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, ARALAR-ALTERNATIBA-?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Aldekoa

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: ARALAR-ALTERNATIBA
Aldekoa, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, eta EA-k ere aldeko botua

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 7 botu (2
EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE; 1
ARALAR /ALTERNATIBA; 2
TALDE MISTOA; 1 EA)
Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 7 votos (2
EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE; 1
ARALAR /ALTERNATIBA; 2
TALDE MIXTO; 1 EA).
Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

LEHENENGOA: EAE-KO
ADMINISTRAZIOAREN ETA
ZUMAIAKO UDALAREN
ARTEKO HITZARMENA AHO
BATEZ ONARTZEA, EAE-KO
ADMINISTRAZIOARI
ZUZENDUTAKO IDAZKIAK
UDAL ERREGISTROAN
AURKEZTU AHAL IZATEKO.

PRIMERO: APROBAR POR
UNANIMIDAD, EL CONVENIO DE
COLABORACION ENTRE LA
ADMINISTRACION DE LA CAPV
Y EL AYTO DE ZUMAIA, PARA
LA PRESENTACION DE
ESCRITOS DIRIGIDOS A LA
CAPV EN EL REGISTRO
MUNICIPAL.

Bigarren puntua: HIRIGINTZA
Bi puntu, Aurrenengoa

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ESKURATZE
ZENTRALIZATUKO SISTEMARI FORU KONTRATAZIOAREN
ZENTRALARI ATXIKITZEKO HITZARMENA ONARTZEA,
BIDEZKO BALDIN BADA.**

Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, Hirigintzan gai hau tratatu dugu, diktamena jaso zuen eta aho batez onartu zen, kontua da bi gai dakarzkigula,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Ez, barkatu Andoni, bakarrik jakiteko gero zera... hartzen duenak, akta hartzen duenak, Pili ere oraintxe etorri berri dela plenora eh? Bakarrik aktan jasotzeko, Andoni

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai... bi puntu dakarzkigu hirigintzan lotuak daude bat bestearekin, bata da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratze zentralizatuko sistemari foru kontratazioaren zentralari atxikitzeko hitzarmena onartzea, honen bitartez ba... zerbitzu desberdinak kontratatu daitezke modu zentralizatuan eta zeintzuk eta... zeintzuk bai eta zeintzuk ez, udalak erabakiko lituzke, Hirigintza batzordean esan duen bezala komentatu da eta energia, argindarra zentralizatuta edo kontratazioaren zentralaren bitartez hartzea egokia iruditzen zaigu, adibidez, aldiz beste lehen gai batzuk edo beste zerbitzu batzuk ba... Zumaiako Udalak, ba... akaso gertuagoko hornitzaileei eskaintzak eta eskaerak eta aukerak emateko agian ba... modu zentralizatuan egitea egokia ez dela izango ere iruditzea dago eta bueno... iruditzen zaigu energia aldiz ba... badela zerbitzu bat ba... iberdrola ez baldin bada, naturgas izango dela baina bueno... lehendabizi egin behar dena da, zentral... zentralari atxikitu eta ondoren zentral horren bitartez zer kontratatu edo esleitzen dugun erabakitzen joan. Orain aurrenengo puntuan egingo genukeena da atxikimendua zentralari eta ondoren bigarrenengo puntuan izango litzateke behin zentralari atxikituta adierazi energia indarra zentralaren bitartez kontratatu nahi dugula, beraz, aurrenengo puntua ba... kontratazioaren zentralari atxikitzea izango litzateke,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Oso ondo... Bateren batek, zerbait esateko, Ezerrez, ba... bozkatzera pasako gara, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Aldeko botua

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua; PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, ARALAR-ALTERNATIBA-?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Aldekoa

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: ARALAR-ALTERNATIBA
Aldekoa, Pili?

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Aldekoa

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, eta EA-k ere aldeko botua

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 8 botu (2
EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE; 1
ARALAR /ALTERNATIBA; 1
INDEPENDENTIA; 2 TALDE
MISTOA; 1 EA)

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 8 votos (2
EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE; 1
ARALAR /ALTERNATIBA; 1
INDEPENDIENTE; 2 TALDE
MIXTO; 1 EA).

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

LEHENENGOA:
GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIAREN ESKURATZE
ZENTRALIZATUKO SISTE-
MARI-FORU KONTRATA-
ZIOAREN ZENTRALARI
ATXIKITZEKO HITZARMENA
AHO BATEZ ONARTZEA

PRIMERO: APROBAR POR
UNANIMIDAD, EL CONVENIO
DE ADHESION AL SISTEMA
DE ADQUISICION CENTRA-
LIZADA-CENTRAL DE
CONTRATACION FORAL DE
LA DIPUTACION FORAL DE
GIPUZKOA

Eta Andonik ondo esan duen bezala orain bigarren puntua, Andoni

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, bigarren
puntuan aurreratu den bezala ba... behin atxikiturik kontratazio zentralari
kontratazio zentralaren bitartez energia edo argindarraren hornidura
kontratatzeko espedientea ba... zentralaren bitartez egitea edo eramatea eta
bertara atxikitzea izango litzateke ba... Foru Aldundia eta atxikitzen diren
beste udaletxe guztien artean eskaintza egokixeagoak lortzeko
esperantzarekin,
Beraz, hori izango litzateke bigarrenko puntua

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Bateren batek, zerbait esateko,
Ezerrez, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Aldeko botua; PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Aldekoa, ARALAR-
ALTERNATIBA-?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Aldekoa

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: ARALAR-ALTERNATIBA
Aldekoa, Pili?

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Aldekoa

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, eta EA-k ere aldeko botua

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 8 botu (2
EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE; 1
ARALAR /ALTERNATIBA; 1
INDEPENDENTIA; 2 TALDE
MISTOA; 1 EA)

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 8 votos (2
EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE; 1
ARALAR /ALTERNATIBA; 1
INDEPENDIENTE; 2 TALDE
MIXTO; 1 EA).

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

LEHENENGOA:
GIPUZKOAKO KONTRA-
TAZIOEN ZENTRALAK
AURRERA ERAMANGO DUEN
ARGINDAR-HORNIDURA
EXPEDIENTEARI ATXI-
KITZEA AHO BATEZ
ONARTZEA

PRIMERO: APROBAR POR
UNANIMIDAD, LA ADHESION
AL EXPEDIENTE DE
SUMINISTRO DE ENERGIA
ELECTRICA DE LA CENTRAL
DE CONTRATACION DE
GIPUZKOA.

Beraz, onartutzat geratzen da eta azkenengo puntua.
ESKARI-GALDERAK,
Bateren batek zerbait esateko, Ezerrez,,
PNV,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV):

Ez dakit den galdera bat edo eskari bat edo erregu bat, ez dakit.
Behin baino gehiagotan eskatu izan dugu autobus urbanoari buruzko informazioa eta ez dakit zertan den,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, nik ere eskaera egin, egin dut eta behin baino gehiagotan eskatu dut eta beste kontu batzuk ere badituzte mahai gainean teknikariak, ari dira lanean hori ere egiteko enkargua badaukate, baina momentuan egin ez badute ba... eskuartean dituzten beste gai batzuei ba... bukatu edo ezinik edo hori atera... atera ezinik dabilenez ba... lehentasunetan aterako da hori ere, baina momentuan ez da atera hori...

Hori da egoera, eskatu eskatu dut behin baino gehiagotan hori eta beste kontu batzuk eta momentuan ez da atera,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Nik usten dut interesantea izango litzatekeela pleno hontan behintzat, nik dakidala hiru aldiz aitatu dugu, horrek esan nahi duena da gutxienez hiruzpalau hilabetetan eskatzen ari den zerbeit dela eta azken finean joan den ekainean hasi zen zerbitzu bat gaurdaino zenbat erabiltzaile, ze ordutegi, ze kosto izan duen kalkulatzeari, benetan ez deritzogu lau hilabetetako atzerapena edukitzeko moduko lan bat, datu objetiboak dira, zenbatgarria eta gure ustetan eskura izan behar dituzuenak eta beste gauza bat izango litzateke behin datu horiek dauzkazutela, teknikoak edo zuek zeurok, edo baten batek helarazi eta datu horien arabera daukazuen iritzia azaltzea,

Orduan lau hilabetetako atzerapena horrelako informazio bat eskaratu ahal izateko, aurrena plenotik batzordera, gero batzorde batetik bestera, gero e-mailez eta horrela ere ez, azkenean pleno batetan berriz agindu dugu baina ez digute kasurik egiten, ez dakit, ez da arrazoibide

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Berrero eskatuko dugu, bihar bertan eta maiatzaren 9an egingo dugun hirigintza batzorderako ba... eramaten saiatuko gara eta... hori eta beste kontu batzuk, jakingo duzun bezala legealdi hontan...

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Zein egunetako?, barkatu

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Maiatzaren 9an egingo dugu hirigintza batzordea eta bertara ba... bihar berriz ere eskatuta, esango diet hori ateratzen saiatzeko, ez dut, uste izango denik konplexuegia baina lehentasunetan esaten dizut, legealdia eskuartetik badoa eta beste gauza batzuk ere atera nahieran ere gabiltza,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Badakigu Gobernuaren lehentasunak ez ditugula ezartzen baina... hainbeste aldiz eskatu den informazio xume bat emateko hainako begirunea ez dugu uste, bi ordu baina haratago joan daiteke lan bat denik, inondik inora, eta mesedez gainontzekoi ere errespetu minimo bat

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Ba... eskatuko dugu eta esan bezala hurrengo hirigintza batzordean emango dira datuak, Besteren batek zerbait esateko, Ezerrez, Ba... eskerrik asko eta hurrengo plenorarte,

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat ematen du, arratsaldeko zazpirak eta hamar direnean eta nik Idazkariak fede ematen dut,

No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente dá por finalizada la sesión cuando son las diecinueve horas diez minutos y yo el Secretario doy fé,

Alkateak,

Idazkariak,

